

# CHANGE *the* CHANGE

INTERNATIONAL CONFERENCE ON CLIMATE CHANGE

**6-8**  
**MARCH**  
**2019**

**DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN**  
**BASQUE COUNTRY**

**#ChangeTheChange19**



**ERAKUSKETA EREMUA**  
**CONNECT 4 CHANGE**

Egoitza: KURSAAL

Change the Change klima-aldaketari buruzko politikez erabakitzen dituztenen topagunea da, eta baita sektoreen arteko topagunea ere. Erakusketa gunea joera eta prozesu berritzaileak bertatik bertara ezagutzeko lekua izango da. Konferentziarekin batera egongo da zabalik, modu paraleloan. Azalera zabal batez, espazio hau bertaratutakoen eta erakunde erakusketarien arteko topaketen erreferentea izango da kafe-atsedenaldietan eta networking bazkarietan. Erakusketa gunea CLIMATE HEROES ROOMerako sarbidean dago.

### ERAKUSKETA EREMUA



**\*Garrantzitsua:** antolatzaileek badute eskubidea egin beharreko aldaketak egiteko, antolakuntza-arrazioengatik; horrelakoetan, aldaketa horiek lehenbailehen jakinaraziko zaizkie erakunde erakusketariei.


## PARTE HARTZEKO AUKERAK

### 1. AUKERA: CONNECT 4 CHANGE – 1.000 €+ BEZ (1 - 7)



- 2m2 -ko modulu indibiduala
- Horma pertsonalizagarria
- Falka formako euskarri pertsonalizagarria, erakundearen grafika bi aldeetan jarrita duena
- Mahai bat eta bi aulki
- Korronte-hargunea
- Bi akreditazio standeko pertsonalarentzat





**2. AUKERA: STAND – 6.000 €+ BEZ (8 - 11)**



- Espazioak: 8 - 11
- 10m<sup>2</sup> -ko modulu indibiduala
- Erakundearen grafikarekin pertsonalizatu daitezkeen bi horma
- Erakundearen grafikarekin pertsonalizatu daitezkeen izozki-orga bat
- Mahai bat eta 2 aulki
- Korrante-hargunea



## GRAFIKAK

- Erakunde erakusketariek txantilo bat jasoko dute, eta hor egokituko dute euren standeko hormak egiteko diseinua, haien zenbakia zehaztu eta gero. Diseinu horiek [changethechange@ihobe.eus](mailto:changethechange@ihobe.eus) emailera bidali beharko dira otsailaren 13a baino lehen.
- Antolatzaileak ez dira konprometitzen egun horren ostean jasotako diseinu eta grafikak inprimatuta izatera, eta diseinu generiko bat inprimatzeko eskubidea gordetzen du beretzat.
- Izozki-orgako toldoaren koloreak pertsonalizatu egin daitezke, hori otsailaren 6a baino lehen jakinarazten bada. Profilen eta moketaren kolorea aldatu nahi baduzu, [changethechange@ihobe.eus](mailto:changethechange@ihobe.eus) emailarekin kontaktatu behar duzu otsailaren 13a baino lehen.

## KONTRATAZIO BALDINTZAK

- **Espazioen asignazioa** eskabideak jasotzearen **ordenaren arabera** egingo da, zorrotasunez.
- Kontratazioa benetan gauzatzeko, **erreserbarako eskabidearen formularioa bidali beharko da** – dokumentu honen amaieran dago-, sinatuta eta zigilatuta, **eta zenbatekoaren % 100 ordaindu beharko da faktura jasotzeko unean, betiere konferentzia hasi baino lehen.**
- Epe hori igaro ostean, antolatzaileek ez badute jaso ordainketaren berrespena, horren berri emango zaio erakundeari eta espazio hori libre utziko da interesa duten bete erakunde batzuen esku jartzeko.
- Garrantzitsua: antolatzaileek badute eskubidea egin beharreko aldaketak egiteko, antolakuntza-arrazoiengatik; horrelakoetan, aldaketak lehenbailehen jakinaraziko zaizkie erakunde erakusketariei.

## EZEZTAPENAK

Parte-hartzearen ezeztapenak idatziz eskatuko dira [changethechange@ihobe.eus](mailto:changethechange@ihobe.eus) emailaren bitartez. Otsailaren 15a baino lehen egindakoei zenbatekoaren % 50 itzuliko zaie. Horren ostean, berriz, ez da inongo diru-itzulketarik egingo.

## ERAKUSKETA KOMERTZAILAREN ORDUTEGIA

Asteartea, martxoak 5	Asteazkena, martxoak 6	Osteguna, martxoak 7	Ostirala, martxoak 8
	<b>09:00 - 19:00</b> Erakusketa komertziala	<b>09:00 - 19:00</b> Erakusketa komertziala	<b>09:00 - 19:00</b> Erakusketa komertziala
	<b>11:00 - 11:30</b> Atsedernaldia - kafea	<b>11:00 - 11:30</b> Atsedernaldia - kafea	<b>11:00 - 11:30</b> Atsedernaldia - kafea
<b>15:00 - 18:00</b> Standen muntaketa ntaje stands	<b>13:45 - 15:30</b> Bazkaria / Networking	<b>13:45 - 15:30</b> Bazkaria / Networking	<b>13:00-15:00</b> Bazkaria / Networking

\***Garrantzitsua:** ezarritako ordutegia Change the Changeren egitarau zientifikoan dago oinarrituta, eta, hortaz, aldaketak izan ditzake.

## ZERBITZU ERANTSIAK

Antolakuntzatik beste elementu hauen kontratazioa ere eskaintzen diegu erakusketariei:

- ↪ Altzariak
- ↪ Ikus-entzunezko ekipamendua
- ↪ Pertsonal laguntzailea
- ↪ Zamalanetarako pertsonala
- ↪ Beste batzuk

## PARTE-HARTZEAREN ARAUDI OROKORRA

- Debehatuta dago standean megafonia erabiltzea, eta baita gainerako erakusketarientzat gogaikarriak izan daitezkeen erakustaldi zaratatsuak ere; hala, soinua gehienez 60 dezibeliora iritsi daiteke, standaren ertzean neurtuta.
- Guztiz debehatuta dago pintatzea, errotulatzea, iltzeak jartzea eta zuloak egitea standetako eta erakustokiko horma eta lurzoruetan. Erakusketariek kalteren bat egiten badute altzari edo ekipamenduan, konponketa haien kontura izango da.
- Erakusketariek euren elementu informatikoak eta ikus-entzunezkoak ekar ditzakete, betiere euren espazioaren dimentsioak, ekitaldiaren irudia edo alboko erakusketarien jarduna baldintzatzen ez badute, eta aurreikusitako ordutegietan muntatu eta desmuntatu badaitezke.
- Erakustokiaren homogeneotasun-arrazoiengatik, erakusketariek ezin dute erakutsi euren standeko mugan antolatzaileek baimendu ez duten elementu grafikorik (roll-up, visuals...).
- Gomendatzen dugu standa beti atendituta egotea, eta baita ondo zainduta ere, paper edo objektu baliagarriak egunaren amaieran modu egokian gordez. Halaber, egunaren amaieran ondo batuta utzi behar da.
- Erakunde erakusketariek Erantzukizun Zibileko poliza bat izango dute, honako hau estaltzeko:
  - ↪ Makineria eta ekipoen garraioa eta mugimendua standetik eta standeraino.
  - ↪ Enpresaren makineria, ekipoak eta pertsonala erakusketak dirauen bitartean, muntatze- eta desmuntatze-aldiak barne sartuta.
- Erantzukizun Zibila: erakunde erakusketari bakoitzak bere gain hartzen du bere ardurapean dagoen ekipoaren kalte, lapurreta edo galera oro, eta baita alokatutako espazioei egindako kalte oro ere. Ez antolatzaileek ez Kursalek ez dute inolako erantzukizunik hartuko erakusketaren instalazioetan dauden bitartean gertatutako sute, istripu, lapurreta edo beste edozein arrazoiagatik pertsonak, produktuek, ekipoek edo dekorazioak izandako galdera edo kalteengatik.

- Garbiketa: Erakunde erakusketarien ardura da standak garbitzea eta erabilitako kaxak eta materialak kentzea. Espazio komunen garbiketa antolatzaileen ardura izango da.

## **MERKANTZIEN BIDALKETA**

- Change the Changeko antolatzaileak ez daude fisikoki Kursaalean; beraz, EZ da arduratzen ekitaldiko egoitzatik edo egoitzara egiten diren bidalketak kudeatzeaz. Erakusketarien/babesleen ardura izango da euren bidalketak kudeatzea eta euren materiala modu egokian etiketatzea eta biltegitratzea, ekitaldiaren amaieran.
- Merkantzien harrera martxoaren 1ean eta 4an soilik egingo da.
- Kursaalera bidalketa bat egiteko, [intarnet.kursaal.org](http://intarnet.kursaal.org) estekara sartu behar duzu eta formulario batek eskatzen dituen datuak bete. Era horretan, paketeetan jarri beharreko etiketak sortuko dira automatikoki, helbide zehatzarekin, eta bidalketaren berri ematen duen jakinarazpen bat bidaliko da KURSAALera. Horren ostean, merkantzia KURSAALera iritsi denean, harrera berresten duen mezu elektronikoa jasoko duzu.
- Ez da hartuko identifikazio egokirik ez duen inolako kaxarik.
- **Beste kontsiderazio batzuk:** tamaina handiko merkantzia edo ekiporik bidaliz gero, [changethechange@ihobe.eus](mailto:changethechange@ihobe.eus) helbidearekin kontaktatu beharko duzu erakustokira sartzeko operazioa koordinatzeko.

## **MUNTAKETA**

- Antolatzaileak arduratuko dira erakusketa komertzialeko standen egitura muntatzeaz eta desmuntatzeaz
- Enpresa erakusketariak MARTXOAREN 5eko –asteartea- 15:00etatik aurrera sartu ahal izango dira erakustokira. Muntaketa 18:00etarako egon beharko da bukatuta.
- Enpresa erakusketariak euren baliabideez (orgak, trolleyak) eraman beharko dute euren materiala biltegitik standeraino.



#### **IDENTIFIKAZIOA / AKREDITAZIOAK**

- Standeko pertsonal guztia akreditatuta egon beharko da batzarrera sartzeko. Akreditazioak **martxoaren 5ean –asteartea- jaso ahal izango dira, 15:00etatik aurrera, akreditazioen mostradorean.**

#### **DESMUNTAKETA**

- Desmuntaketa batzarra amaitzen denean hasiko da, gutxi gorabehera 15:00etan. Material guztia 18:30ak baino lehen egon beharko da batuta.
- Erakunde erakusketariak batzarreko biltegira eramango dituzten euren materialak, ondo etiketatuta, hurrengo egunean jaso ahal izan daitezten.
- Biltegian entregatzen ez diren materialak ez dira biltegitratutako materialtzat hartuko, eta, hortaz, suntsitu egingo dira. Hurrengo bi egunetan jasotzen ez diren materialak botatzeko materialtzat joko dira.

STANDAK KONTRATATZEKO FORMULARIOA	
<p><i>Espazioen asignazioa eskabideen eta dagokien ordainagiriaren jasotzearen ordenaren arabera egingo da, zorrotasunez. Kontsulta itzazu espazioen eskuragarritasuna erreserba egin aurretik: <a href="mailto:changethechange@ihobe.eus">changethechange@ihobe.eus</a>.</i></p>	
ERAKUSKETARIAREN DATUAK	
Enpresa:	
Harremanetarako pertsona:	
Kargua:	
Telefonoa:	
E-maila:	
FAKTURAZIO DATUAK	
Sozietate-izena:	
IFK:	
Helbidea:	
Posta Kodea:	
Hiria:	
Probintzia:	
Herrialdea:	
ERAKUSKETA-ESPASIOAREN HAUTAKETA	
<p><i>Kontratatu beharreko standaren zenbakia adierazi</i></p>	

**ORDAINTZEKO ERA:**

- Banku-transferentzia:

TITULARRA: IHOBE

KONTU ZKIA.: ES88 3035 0012 78 0120005044

Kontzeptua: Konpainiaren izena + faktura zenbakia

- Kontzeptuan jarri behar da sarrera egiten duen enpresaren izena. Hautatutako aukeraren baldintzak betearazi daitezten, beharrezkoa da formulario hau [changethechange@ihobe.eus](mailto:changethechange@ihobe.eus) helbidera behar den beteta bidaltzea.

Izena eta abizenak \_\_\_\_\_

Enpresaren sinadura eta zigilua

(Lekua ) \_\_\_\_\_ (eguna) \_\_\_\_\_ (hilabetea) \_\_\_\_\_ (urtea) \_\_\_\_\_